

**ZARAUZKO
TRIATLOIA 2022
Ekainak 11**

Zarauzko Triatloiak 14:20ak eta 18:30ak bitartean izango ditu eraginak Getariako udalerrian, tarte horretan N-634 errepidea itxita egongo delako Zarauzko norabidean.

Bitarte horretan honako neurriak hartzeko proposamena aurkezten da, antolakuntzak burutu duen Trafiko Planaren arabera:

Getariara iristeko

Zarauztik

- N-634 errepidetik joan ahalko da normaltasunez.

Zumaiatik

- Zarautzera Autopistaz eta N-364

Getariatik irteteko

Zumaia aldera:

- Irekita uneoro.

Zarautz aldera:

- **14:30etik 18:30era N-634 errepidea itxita egongo da Zarauzko noranzkoan.**
 - **Saihesbidea:** N-634 errepidetik Zumaira joan eta bertatik autopista hartu. Irteera Gaztetapetik bakarrik egongo da baimendua. Beraz, aurreko egunean Gaztetape hondartza ondoan aparkatzea gomendatzen da.
- Getariatik Zarautza bidean dagoen norabide aldaketaren ondoren boluntarioak egongo dira. Bertan adierazpenak emango dituzte, eta Zumaiatik barrena Zarautza autopistan iritsi nahi dutenei ticket bat emango zaie zerbitzua doakoa izan dadin.
- Getariarrek ticket hau eguna baino lehenago hartzea nahiko balute, Getariako Udaletxean jasotzeko aukera izango dute.

Garraio Publikoa

Lurrebuseko aldaketen berri izan orduko Udaletxetara bidaliko dira oharrak.

Urgentziazko kasuak

- Anbulantziek zein suhiltzaileek lasterketako ibilbidean sartu ahal izango dute, hala behar izanez gero.